

Plaza Barriaren lagapena

2014-IX-11

Euskera. 2014, 59, 1. Bilbo
ISSN 0210-1564



Bizkaiko Foru Diputatu Nagusiaren hitzak

BILBAO, Jose Luis
Bizkaiko Foru Diputatu Nagusia

Lehenengo, eskerrak emon gura deutsuedaz guztioi Foru Aldundiarentzat hain garrantzitsua dan ekitaldi honetan egoteagaitik.

Gaur, Bizkaiko Foru Aldundiak, Gobernu Kontseiluak ordezkoturik, eta, Euskaltzaindiak, haren Zuzendaritzak ordezkoturik, barritu egingo dogu Akademiari egoitza lagateko hitzarmena.

Bilboko Plaza Barriaren 15. zenbakian dagoan eraikin hau 1985. urtetik da Euskaltzaindiaren egoitza.

Izan be, urte haretan eraikina lagateko lehen hitzarmena sinatu eben **José María Macua** Bizkaiko Ahalduen Nagusiak eta **Luis Villasantek**, 1970-1988 aldian euskaltzainburu izan zanak.

Gaur, nabarmendu gura neuke demokrazia sasoiko lehenengo ahalduen nagusia izan zan José María Macuak orduan hartutako erabagia.

Hoy quiero destacar la importancia de aquella decisión de José María Macua, primer Diputado General de Bizkaia de la democracia.

Él tuvo muy claro que la sede de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia debía ser digna, una sede que formara parte importante de la historia de Bizkaia.

Macua, hombre inteligente, comprometido con el euskera y muy bizkaino, decidió que la sede mayor (egoitza nagusia) de Euskaltzaindia

fuera el edificio que hasta 1900 había sido la sede de la propia Diputación Foral de Bizkaia.

Macuak oso garbi ekien Euskaltzaindiaren egoitza duina izan behar zala, Bizkaiko historiaren zati garrantzitsu bat.

Macua oso gizon argia zan, bizkaitar petoa, konpromiso handia zuen euskeragaz, eta erabagi eban 1900. urtera arte Bizkaiko Foru Aldundiaren beraren egoitza izandako eraikina izan behar zala Euskaltzaindiaren egoitza nagusia.

Beraz, gaur niretzat ohore handia da hitzarmena datozan 30 urteetarako barritzea.

(beti be, erakunde biek gura badabe, jakina).

Un gran honor, si.

Con esta firma, hemos renovado hoy simbólicamente el compromiso firme y sentido de la Diputación Foral de Bizkaia con nuestra lengua, la lengua de los vascos y vascas, el Euskera.

El euskera es una de nuestras señas de identidad como Pueblo, es parte de nuestra cultura, tradición y patrimonio.

Y, entre todos y todas, debemos proteger, cultivar, difundir y socializar nuestra lengua.

Sinadura honen bitartez modu sinbolikoan barritzen dogu Bizkaiko Foru Aldundiak euskeragaz daukan konpromisoa, hain zuzen be, euskaldun guztion hizkuntzagaz.

Euskera gure Herriaren identitatearen ezaugarrietako bat da, gure kultura, tradizioa eta ondarea diran lez.

Hori dala-eta, guztion artean babestu, landu, zabaldu eta gizarteratu behar dogu gure hizkuntza.

Ondo baino hobeto dakizueenez, Bizkaiko Foru Aldundiak eten barik egiten dau behar helburu horren alde.

Horretarako, hainbat ekimen egiten doguz, batzuetan bakarrik eta, beste batzuetan, beste erakunde eta instituzino batzukaz –kasu honetan lez–.

Baina, beti be, helburu irme honegaz: euskaldunon hizkuntza ZABALDU, GIZARTERATU ETA SUSTATEA.

Eta helburu horretan bat egiten dogu erakunde biok.

1918. urtean, lau Foru Aldundiek sortu eben Euskaltzaindia.

Euskaltzaindia erakunde akademiko bat da;

Ikertu eta arauak emoten dauz euskeraren eboluzinoa zuzena izan daiten;

Euskeraren erabilera sustaten dau eta administrazino zein herritarrei aholkua emoten deutse euskeraren erabileran.

Ezin da ahaztu Gernikako Autonomia Estatutuaren 6. artikulua zein dinoen: euskera Euskal Herriaren berezko hizkuntza da, eta ofiziala da gaztelaniagaz batera; gure erkidegoko biztanle guztiek daukie hizkuntza biak jakin eta erabilteko eskubidea.

Eta azpimarratu behar da Gernikako Autonomia Estatutuaren arabera Euskaltzaindia erakunde aholku-emoile ofiziala dala euskeraren arloan.

Barriro be garbi itxi gura dot Bizkaiko Foru Aldundiak sano errespetetan eta estimetan dauzala Euskaltzaindia eta haren lana.

Una vez más reitero el respeto y cariño de la Diputación Foral de Bizkaia a Euskaltzaindia y a su labor.

Una labor que siempre ha contado con el apoyo de la Diputación Foral de Bizkaia, desde la cesión de la propia sede (en 1985) hasta el trabajo activo para el acuerdo-marco del conjunto de las instituciones vascas con Euskaltzaindia (en 1992).

Desde entonces, hemos colaborado en diferentes trabajos, como:

- la edición del Diccionario Vasco,
- el Atlas Lingüístico,
- las investigaciones en materia de toponimia,
- la elaboración de la página web,
- etc.

Y, más recientemente, en los últimos años, en diferentes colaboraciones como la financiación de la catalogación y digitalización de dos conjuntos documentales importantes:

- la obra de Aita Villasante a través de un acuerdo entre la comunidad franciscana de Aranzazu, Euskaltzaindia y la Diputación Foral de Bizkaia,
- y la obra de Resurrección M. Azkue, fruto de un acuerdo entre Euskaltzaindia y esta Diputación Foral de Bizkaia.

Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza euki dau lan horretan, betidanik.

Amaitu behar dot.

Gaur, egun handia, berezia eta garrantzitsua da Aldundiarentzat eta niretzat, Ahalduen Nagusiarentzat.

Izan be, gaur, hitzarmen bat sinatzeaz gainera, kinu bat egiten dogu euskeraren alde eta euskera ikertu, arautu eta zabaldu behar dabean gizon eta emakumeen alde.

Hori dala-eta, Ander Urrutia, euskaltzainburu, plaka bat emongo deusut ekitaldi hau amaitzen danean, eta gura neuke Plaza Barriko zuen egoitzan jartea, ondo ikusten dan leku batean.

Plaka horren bitartez, gaur hemen gure erakundea ordezkotzen dogunon konpromisoa adierazoten da; Araban jaio baina umetatik Bilbon bere familiagaz bizi izan zan **Jose Pablo Ulibarrik** bere konpromisoa adierazo eban lez.

Izan be, Ulibarrik konpromiso handia euki eban euskeragaz, eta aitzindari izan zan haren defentsan.

Gernikako Batzar Nagusietan ahalduna zala (Abandoko barrutitik), 1892. urtean kanpaina bat abiarazo eban euskeraren akademia bat sortzeko, eta proponidu eban Gernikako Batzar Nagusiek izentautako 24 kidek osatzea:

«Ogetalau gizon behar dira izendatu Gernikako batzarrean / egiteko alegina euskeraren ganean».

Berba horreek plakan jasoten dira, euskera duindu eta zabaltzearen alde eginiko lan irmearen seinale.

Horreek dira-eta gaur –eta espero dot 30 urte barru be– Bizkaiko Foru Aldundiak eta Euskaltzaindiak alkarregaz daukaguzan helburuak:

– Euskera duindu eta zabaltzea.

Jose Pablo Ulibarri, alavés de nacimiento pero bizkaino desde niño, siendo apoderado en las Juntas Generales de Gernika, promovió en 1832 una campaña para la creación de una Academia de la Lengua vasca, proponiendo que fuera constituida por 24 miembros elegidos en las Juntas.

Sus palabras forman parte de esta placa, como recuerdo a su tenacidad en pro de la dignificación y difusión del euskera.

Los dos objetivos que hoy, y espero que dentro de 30 años también, compartimos Diputación Foral de Bizkaia y Euskaltzaindia:

– Dignificación y Difusión del Euskera.

Beste barik, Eskerrik asko!!!



Euskaltzainburuaren hitzak

URRUTIA, Andres
Euskaltzainburua

Bizkaiko Foru Ahaldun nagusia
Bizkaiko Foru Aldundiaren ahaldunak
Euskaltzaindiaren zuzendaritza kideak
Euskaltzaindiaren lurralde ordezkariak
Jaun-andreok,

Egun on guztioi

Buenos días a todos.

Datorren urtean beteko dira hogeita hamar urte Jose Maria Makua Bizkaiko Foru Ahaldun Nagusiak eta Aita Luis Villasante euskaltzainburuak halako eskritura publikoa sinatu zutenetik. Bertan hitzez hitz honakoa esaten zen, 1985. urtean:

Bizkaiko Foru Aldundiak Euskarari ardura eta babes gorena eman nahirik, kasu honetan, Erakunde Gidariari egoitza duin eta egokia emanetz, Bilbo hiriko Plaza Barrian aintzina Aldundiaren Jauregia izandako Etxea Euskaltzaindiaren beharrianetarako honen eskuetan uztea erabaki du.

Hitz horiek laburbiltzen dute, laburbildu ere, gaurko ekitaldiaren esanahia, Euskaltzaindiari luzatzen baitzaio bere egoitzaren erabilera beste hogeita hamar urterako.

Es Kerrak, beraz, Bizkaiko Foru Aldundiari eta engaiamendua, hurrengo hogeita hamar urte horiek emankor izan daitezen Euskaltzaindiaren lanean

eta, azken batean, euskalgintzaren eremuan, euskal gizartea baita Akademiaren helburua eta jomuga.

Casi treinta años son hoy testigos del acuerdo entre la Diputación Foral de Bizkaia y Euskaltzaindia para dotar a la institución consultiva oficial en materia de euskera, Euskaltzaindia-Real Academia de la Lengua Vasca, de una sede digna y adecuada para su actividad. Hay que recordar que tras el acuerdo entre la Diputación Foral de Bizkaia y Euskaltzaindia de 1985, 1991 fue el año de la ubicación definitiva de la Academia en la actual sede de Plaza Barria en Bilbao.

30 años que han dado mucho de sí en Plaza Barria tanto en momentos de trabajo (congresos, reuniones, recepciones al mundo del euskera, presentaciones, etc.) como en momentos de júbilo, con la incorporación de nuevos académicos, o de duelo, como el repentino fallecimiento de Juanjo Zearreta, a quien velamos en nuestra sede. De hecho, la sede se ha convertido en el centro de referencia para actividades en torno al euskera y la cultura vasca en Bilbao, generando un conocimiento inducido del euskera y la cultura vasca a través incluso de múltiples visitas o Jornadas sobre el patrimonio, que ponen de relieve la presencia del euskera y la cultura vasca y la incardinan en su entorno físico y geográfico del Casco Viejo de Bilbao, abierto a Euskal Herria.

En definitiva, momentos en la vida de una institución, que ha querido y quiere mostrar a la sociedad vasca y al mundo en general que los principios para los que fue creada hace casi cien años siguen hoy más que nunca vigentes y de actualidad.

Horretarako baliatu du Euskaltzaindiak Bizkaiko Foru Aldundiak utzi zion eraikin ederra, benetako lantegia izan dadin euskararen gaietan eta euskararen aldetik Akademiari dagokion zeregina betetzeko eta bere lan zientifiko, intelektual eta soziala aurrera eramateko, gizartearen eta gizabakoeren zerbitzuan.

Konfiantza eman zioten orduko hartan Bizkaiko Foru Aldundiak eta gizarteak Euskaltzaindiari eta konfiantza horri erantzun egokia eman diogulakoan gaude. Ez oraingo zuzendaritza edota euskaltzainok bakarrik, ezpada

azken hogeita hamar urte hauetan Plaza Barriko etxean lan egin duten eta lanean ari diren guztiak: euskaltzainak, Akademiaren langileak eta laguntzaileak.

Toca ahora renovar la confianza que hace casi treinta años puso la Diputación Foral de Bizkaia en Euskaltzaindia. Creemos, en nuestra modestia, que el balance de lo realizado es merecedor de que se renueve la confianza en la Institución. A la creación, investigación y desarrollo de conocimiento y su transferencia en el ámbito del euskera y de la cultura vasca, que se ha desarrollado en la sede de Bilbao, se añade en nuestro caso su utilidad social, sin la cual una Academia cada vez tiene menos sentido.

Vocación de servicio y excelencia son las claves de esta actividad para la que de nuevo hemos solicitado su confianza a la Diputación Foral de Bizkaia, que a ello ha accedido y que hoy se formaliza de manera pública.

Eskerrak, beraz, Bizkaiko Foru Aldundikoei zuen ahaleginengatik eta euskararen Akademiari lanabes baliosa eskaintzearen. Hala egin zuen 1985. urtean Aita Villasante euskaltzainburuak eta hala egiten dut nik ere, kargu berean, hogeita hamar urte geroago. Lanabes baliosa eta ezinbestekoa jartzen du Akademiaren eskuetan, beste behin ere, Bizkaiko Foru Aldundiak, bera baita, beste erakunde publiko (Eusko Jaurlaritza, Araba eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, Nafarroako Gobernua, Madrilgo Gobernua eta Euskararen Erakunde Publikoa, euskal hiriburuetakako Udalak) eta pribatuekin batera (besteak beste, Kutxabank, BBK Fundazioa, Laboral Kutxa eta hainbat herritar), Akademiaren egunerokoa bermatzen duena Bizkaian eta Euskal Herrian. Horra, bada, Euskaltzaindiaren egoitza, Lurraldeetako ordezkariarekin eta Ikerketa Zentroarekin batera, zin-zinezko sarea osatzen duena, euskarari eta euskal kulturari batasuna eman nahian.

Orain etorkizuna datorkio erakundeari. Bihar-etziko Euskaltzaindia dugu jokoan eta badakigu erakunde hori ez dela izango orain hogeita hamar urte zena, etengabe egokitzen ari baita gizarteak eta euskalgintzak dituen premia berrien aurrean.

La firma del convenio que hoy se ha formalizado no es solo un documento administrativo, es la constatación de que la Diputación Foral de

Bizkaia renueva su compromiso. Un compromiso que viene de lejos. No en vano la Diputación Foral de Bizkaia fue una de las cuatro instituciones que promovieron la creación de Euskaltzaindia hace ya casi 100 años. Un compromiso con la máxima institución del euskera, para que Euskaltzaindia prosiga con su trabajo diario de cultivo y promoción del euskera, con su aportación y magisterio en el campo de la normativización y la normalización de la lengua vasca.

Horixe da Euskaltzaindiari gizarte honek eman dion agindua eta horixe da, izan ere, gure aurrekoek bete dutena eta gu oraintxe betetzen ari garena.

Izango ahal gara gu ere gai, gutxienez, gure aurrekoek egin zutena aintzat hartzeko eta aurrera eramateko, aldiak aldi, euskararen Akademia!

Eskuan jarri zitzaigun tresna, etxea, egoitza, berriro ere eskuratu zaigu.

Dena onartu eta atxiki dugu.

Egin dezagun, bada, elkarrekiko bidea!

Mila esker,



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKALTZAINDIA
EL M. GOBIERNO DE LA LENGUA VASCA
ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

Bilbon, 2014ko irailaren 11n

BILDU DIRENAK

Batetik, JOSE LUIS BILBAO EGUREN JAUNA, BIZKAIKO AHALDUN NAGUSIA, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAren izenean eta haren ordezkari gisa, Aldundiak, hala onartu baitzuen 2014ko abuztuaren 20an, eginiko Gobernu Kontselluan.

Bestetik, ANDRES URRUTIA BADIOLA JAUNA, EUSKALTZAINBURUA, EUSKALTZAINDIAren izenean eta haren ordezkari gisa, Euskaltzaindiak hala izendatu baitzuen Bilbon, 2012ko urriaren 18an, eginiko Osoko bilkuran.

ADIERAZTEN DUTE

LEHENENGOA.- BIZKAIKO FORU ALDUNDIA (aurrerantzean, BFA) Bilboko Plaza Barriko 15. zenbakiko eraikinaren jabea da, eta eraikin horrek beheko solairua, behegaina, hiru solairu eta ganbarak ditu.

Bada, ondasun hori Bilboko 7. zenbakiko Jabetza Erregistroan dago inskribatuta, 5237 zenbakiarekin, 1380 liburukian, 74 liburuan,

En Bilbao, a 11 de septiembre 2014

REUNIDOS

De una parte el EXCMO. SR. DIPUTADO GENERAL DE BIZKAIA, D. JOSE LUIS BILBAO EGUREN, actuando en nombre y representación de la DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA, en virtud de acuerdo de su Consejo de Gobierno, en reunión celebrada el 20 de agosto de 2014.

Y de otra, el EXCMO. SR. PRESIDENTE DE EUSKALTZAINDIA, D. ANDRES URRUTIA BADIOLA, actuando en nombre y representación de EUSKALTZAINDIA-REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA, en calidad de Presidente, en virtud de acuerdo del Pleno de euskaltzaindia celebrado el 18 de octubre de 2012.


EXPONEN

PRIMERO.- Que la DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA (en adelante BFA-DFB) es propietaria del inmueble sito en Bilbao, Plaza Nueva nº 15, que consta de planta baja, entresuelo, tres pisos y buhardillas.

El referido bien se encuentra inscrito en el Registro de la Propiedad nº 7 de Bilbao, nº 5237, tomo 1380, libro 74, folio 94,



<p>94 folioan; Hirilurren Katastroan U0207190F zenbaki finkoa dauka, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Ondasunen eta Eskubideen Inbentario Nagusian ondasun higiezin horrek EDF DFB0/1065 gakoa dauka.</p> <p>BIGARRENA.- BFAk, 1985eko martxoaren 5eko bileran hartu eta 1985eko uztailaren 10ean eskritura publikoan jaso zuen erabakiaren bidez, higiezin hori EUSKALTZAINDIARI lagatzea erabaki zuen, 30 urterako, erakundearen estatutuetan jasotako helburuak betetzeko eta egoitza nagusia izateko.</p> <p>HIRUGARRENA.- Denbora gutxi falta denez lagapenaren epea amaltzeko, EUSKALTZAINDIAK adierazi du interesa duela aurrerantzean ere eralkin horretan egon dadin bere jardunaren egoitza nagusia.</p> <p>LAUGARRENA.- BFAk ere interes bera duenez, erabilera berriro lagatzeko erabakia hartu du Aldundiaren Gobernu Kontseiluak, 2014ko abuztuaren 20ko bileran, aurrerago zehaztuko diren baldintzetan.</p> <p>BOSGARRENA.- EUSKALTZAINDIAK, Gobernu Batzordearen 2014ko irailaren 3ko bileran, lagapenaren berritzea onartzea erabaki du, BFAk zehaztutako baldintzetan.</p> <p>Alderdi biek elkarri onartzen dizkiote jarduteko behar besteko lege-gaitasuna eta ordezkaritza. Ondorioz, alderdi biak ados daudela, ERABILERA LAGATZEKO hitzarmen hau egilesten dute, hizpaketa hauen arabera:</p>	<p>identificado en el Catastro de Urbana con el nº fijo U0207190F y en el Inventario General de Bienes y Derechos de la Diputación Foral de Bizkaia con la clave de bien inmueble EDF DFB0/1065.</p> <p>SEGUNDO.- Que en virtud de Acuerdo de la DFB, en Sesión celebrada el 5 de marzo de 1985 y elevado a Escritura Pública el 10 de julio de 1985, fue cedido a EUSKALTZAINDIA – REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA (en adelante EUSKALTZAINDIA) el uso de dicho inmueble, por un periodo de 30 años, para el desarrollo de sus fines estatutarios y localización de su Sede Central</p> <p>TERCERO.- Que encontrándose próxima la finalización del plazo de la referida cesión, EUSKALTZAINDIA ha manifestado su interés en que el mencionado inmueble continúe constituyendo su Sede Central de actividad.</p> <p>CUARTO.- Que BFA-DFB, siendo coincidente con dicho interés, en reunión de su Consejo de Gobierno celebrada 20 de agosto de 2014, ha acordado una nueva cesión uso en las condiciones que más adelante se dirán.</p> <p>QUINTO.- Que EUSKALTZAINDIA, en su Junta de Gobierno de 3 de septiembre de 2014, ha acordado aceptar dicha renovación de la cesión, en los términos establecidos por BFA-DFB.</p> <p>Por lo que ambas partes, reconociéndose mutuamente capacidad legal suficiente, y aceptándose recíprocamente la representación a cuyo tenor tienen a bien actuar, de común acuerdo otorgan el presente convenio de CESIÓN DE USO, que se registrá conforme a las siguientes</p>
---	--




HIZPAKETAK	ESTIPULACIONES
<p>LEHENENGOA.- BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK (BFA) doan lagako dio EUSKALTZAINDIARI Bilboko Plaza Barriko 15. zenbakiko eraikinaren erabilera; eraikina dokumentu honen LEHENENGO PUNTUAN azaltzen da.</p>	<p>PRIMERA.- La DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA (BFA-DFB) cede gratuitamente, a EUSKALTZAINDIA-REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA el uso del inmueble sito en Bilbao, Plaza Nueva nº 15, descrito en el EXPONENDO PRIMERO del presente documento.</p>
<p>BIGARRENA.- Lagatako eraikin hori bakarrik erabili ahal izango da lagapen-hartzailearen estatuetan jasotako helburuak betetzeko eta haren egoitza nagusia izateko.</p>	<p>SEGUNDA.- El inmueble cedido será destinado al cumplimiento de los fines estatutarios propios de la cesionaria y al establecimiento de su sede central.</p>
<p>HIRUGARRENA.- Lagapena HAMAR (10) urterako da, 2014ko irailaren 1etik hasita. Dena den, eta BFAk kontraktorik esaten ez badu, baimen hori, automatikoki, HAMAR (10) urteko beste epe birako luzatu ahal izango da. Aldundiak baimena luzatu nahi ez duenean, behar bezala frogatzeko moduan jakinarazi behar dio hori lagapen-hartzaileari, gutxienez ere hasierako baimena edo haren luzapena amaitu aurretik baino sei hilabete lehenago. Edonola ere, iraunaldia, guztira (luzapenak barne) ezin izango da hogelita hamar urte baino handiagoa izan.</p>	<p>TERCERA.- La cesión se realiza por un plazo de DIEZ (10) años, contados a partir del día 1 de septiembre de 2014, prorrogable automáticamente por otros dos periodos de DIEZ (10) cada uno, salvo manifestación expresa en contrario por parte de la DFB, que deberá notificarse fehacientemente a la cesionaria con una antelación mínima de 6 meses a la finalización del plazo inicial previsto o de cualquiera de sus prórrogas, y sin que la duración total, incluidas las prórrogas, pueda exceder de treinta años.</p>
<p>LAUGARRENA.- Lagatako espazioa soilik erabil daiteke bigarren hizpaketan adierazitako erabilerarako. Baldintza hori bete ezean lagapena automatikoki suntsituko da eta erakunde lagatzaileak berehala berreskuratuko du lagatako higiezinaren edukitza osoa; gainera, lagatzaileak higiezinean izan litezkeen kalte eta galeren ordaina jasotzeko eskubidea izango du, peritu-tasazioa egin ondoren.</p>	<p>CUARTA.- El espacio cedido no podrá ser destinado a un uso distinto del indicado en la estipulación segunda. El incumplimiento de tal condición dará lugar a la resolución automática de la cesión con la inmediata recuperación, por parte de la Institución cedente, de la plena posesión del elemento cedido, teniendo ésta derecho a percibir, previa tasación pericial, el valor de los posibles daños y detrimentos experimentados en el inmueble.</p>




<p>BOSGARRENA.- Lagapen-hartzailearen kontura izango dira bai higiezinaren gastu arruntak (komunitatea, hornidurak, mantentze-lan arruntak, etab.) bai hobekuntza gastuak. Urtero, gainera, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari dagokion zenbatekoa ordainaraziko zaito. Higiezinaren egiturari eragiten dioten ezohiko gastuak BFaren kontura izango dira.</p>	<p>QUINTA.- Serán de cuenta la cesionaria los gastos ordinarios del inmueble (comunidad, suministros, mantenimiento ordinario, etc.), así como los gastos de mejora. Anualmente se le repercutirá el importe correspondiente al Impuesto sobre Bienes Inmuebles. El abono de los gastos extraordinarios que afecten a la estructura del inmueble corresponderá a BFA-DFB.</p>
<p>SEIGARRENA.- Lagataka espazioa egokitzeko lanak lagapen-hartzailearen kontura izango dira, eta higiezinaren onurarako izango dira lagapenaren epea amaitu ondoren. Orain zein etorkizunean halako lanik egin behar bada, lan horiek egiteko proiektuak ondarearen arloan eskuduna den Foru Aldundiko Sailaren baimena lortu behar dute.</p>	<p>SEXTA.- Las obras de acondicionamiento del espacio cedido serán por cuenta de la cesionaria, quedando en beneficio del inmueble una vez concluido el plazo de cesión. El proyecto para la realización de dichas obras, presentes o futuras, deberán contar con la autorización del departamento de la Diputación Foral competente en materia de Patrimonio.</p>
<p>ZAZPIGARRENA.- Lagapen-hartzailea erantzule izango da pertsona edo ondasunei eragin ahal zaizkien kalteengatik, kalteok, zuzenean edo zeharka, erakinean egindako jardueren, haren lan edo erreformen, edo higiezinaren erabilera soilaren ondorioz gertatu badira. Beraz, BFA salbuetsita geratuko da edozein erantzukizunetik. Nolanahi ere, lagapen-hartzaileak bere gain hartuko du hirugarrenei sortutako kalte-galeren erantzukizun zibila, lagapenak indarrean dirauen bitartean. Hori dela-eta, erantzukizun zibileko asegurua kontratatu beharko du, eta asegurur horrek gutxienez ere MILIOI BAT euroko (1.000.000 €) kalte-ordainetarako muga orokorra izan behar du. Gainera, asegurur hori behar bezala jakinarazi behar dio BFari.</p>	<p>SÉPTIMA.- La cesionaria responderá de cuantos daños pudieran ocasionarse a personas o bienes y sean consecuencia, directa o indirecta, de las actividades desarrolladas, de obras o reformas, o del mero uso del inmueble, eximiendo de toda responsabilidad a BFA-DFB. En todo caso, la cesionaria asume la responsabilidad civil frente a terceros por daños y perjuicios que puedan ocasionarse durante el tiempo que dure la vigencia de la cesión. A estos efectos deberá contratar el correspondiente Seguro de Responsabilidad Civil con un límite general indemnizatorio de al menos UN MILLÓN (1.000.000) euros, y notificarlo adecuadamente a BFA-DFB</p>
<p>ZORTZIGARRENA.- Lagapen-hartzaileak, aurreko aseguruaraz gainera, kalteetarako asegurur-poliza bat kontratatu behar du, gutxienez ere BI MILIOI euroko (2.000.000 €) edukitzaile-balioa estali behar duena, eta hori ere BFari jakinarazi behar dio. Horrez gain, polizaren hurrengo eguneratzeak —izan</p>	<p>OCTAVA.- La cesionaria deberá contratar, asimismo, una póliza de seguro de daños por un valor de continente no inferior a DOS MILLONES (2.000.000) euros, lo que habrá de ser igualmente notificado a BFA-DFB. Las posteriores actualizaciones de la póliza, que contendrán los posibles incrementos de</p>



<p>litezkeen balio-gehikuntzak jasoko dituztenak— ere jakinarazi beharko dizkio.</p>	<p>valor, también deberán ser comunicadas.</p>
<p>BEDERATZIGARRRENA.- EUSKALTZAINDIAK ez baditu betetzen onartu dituen baldintzak, edo haien muga gainditzen badu, Bizkaiko Foru Aldundiak edozein unetan suntsiarazi ahal izango du lagapen hau, eta egokitzat jotzen duen erabilera eman ahal izango dio espazio horri.</p>	<p>NOVENA.- En caso de incumplimiento de las condiciones asumidas por EUSKALTZAINDIA o de extralimitación de las mismas, BFA-DFB podrá dar por resuelto en cualquier momento la presente cesión, dando al espacio cedido el destino que estimare oportuno.</p>
<p>Eta azaldutako guztiarekin ados daudela adierazteko, alderdiek dokumentu honen bi ale sinatu dituzte, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.</p>	<p>Y en prueba de conformidad con cuanto antecede, firman el presente documento, por duplicado ejemplar en el lugar y fecha indicado en el encabezamiento.</p>


 José Luis Bilbao Eguren
 Ahalduen Nagusia


 Andrés Urrutia Badiola
 Euskaltzainburua